Mariasun Landa ○ Idazlea

Haur eta gazte literaturako bildumetan kaleratu dira Mariasun Landak idatzitako libururik gehienak. Salbuespen bakanetako bat da 'Inurrien hiztegia', inurriei buruzko 50 ipuin laburrez osatutako bilduma.

«Liburu bat pedagogikoa da ondo idatzita dagoenean»

JON URBE / ARGAZKI PRESS

Juan Luis Zabala Donostia

Askatasunez eta ondo idaztea da funtsezko lehentasuna Mariasun Landarentzat (Errenteria, 1949). Gero iritsiko da sortutako obra sailkatzeko unea. Helduen literaturako bilduma batean kaleratu du *Inurrien hiztegia* ipuin laburren bilduma (Pamiela), baina berak argi du bere aurreko lanetako asko ere gazte literaturaren eta helduen literaturaren arteko muga lausoan daudela, eta muga horretan gero eta liburu gehiago gurutzatzen direla.

Oso gizatiarrak dira *Inurrien hiztegia* liburuko ipuinetako inurriak.

Erabat. Niri, inurria, animalia gisa, ez zait batere interesatzen. Bakarrik interesatzen zait gure iruditegi kolektiboan antolaketa oso konplexu baten ideia bat bideratu duelako; langile izaerarekin eta aurrezteko senarekin ere lotzen da, baina, batez ere, antolaketaren ideia interesatzen zait, eta horren aurrean indibidualtasunaren erreibindikazio bat egitea. Baina, bitxia badirudi ere, idazterakoan ez dut horretaz batere pentsatu. Aukeratu nuen inurria grazia egiten zidalako, eta ipuin laburretan Gianni Rodarik binomio fantastikoa deitzen duen hori suertatzen zelako; inurri batek saxo ikastaroa egin nahi duenean, adibidez. Binomio fantastiko hori irudikatzean, ni barrutik barrez hasten nintzen.

Inurrien antolaketaren eta harremanen bidez, egungo gizartearen hainbat alderdiren kritika egin duzu.

Bai, baina ez dut hori bilatu. Gehiago funtzionatu du binomio fantastikoaren ideiak. Anbulatorioan inurri bat dagoela imajinatzeak sorrarazten dit buruan zerbait; edo inurri bat eskuko telefonoa erabiltzen... Gero, ipuina idaztean, nire mundua agertzen da, edo nire begirada ironikoa. Eta umorea. Batez ere, umorea landu nahi izan dut, idazle gisa ondo pasatu; eta gero, argitaratzea erabaki nuenean, irakurleak ere ondo pasatzea.

Idazkera sinplea da, ez dago esaldi korapilatsu eta konplikaturik.

Bai. Hori ja lotuta dago nire izae-

34» Azken hamarkadetako klasikoak eta gazteen erreferenteak uztartu ditu Sonar jaialdiak

rarekin eta nire erabaki literario edo estilistikoarekin. Ahalik eta hizkuntzarik soilena erabiltzea gustatzen zait, baina landua, ia konturatu gabe sartzen dena, esaldi konplikatuegirik gabe. Idazleok asko zuzentzen ditugu testuak, eta hori da nire lanketa. Ipuin hauetan ere hori da sekretua, soiltasun horretan eta erraztasun horretan ezkutuan dagoen alde bat nabarmentzea. Itxuraz errealitate bat ageri da, baina azpian beste zerbait dago.

Ironiak bigarren irakurketa sakonago baterako aukera ematen du maiz.

Horregatik atera da liburua helduen literaturako sail batean, ironia oso baliabide garrantzitsua delako. Askotan galdetzen didate norentzat sortzen dudan, eta inoiz ez dut ondo erantzuten asmatzen, ez dakidalako. Inurrien ipuin sorta honetako bi haurrentzako argitaratu ditut: *Inurri bitxia*, kirurgia estetikoa egin nahi zuen inurriarena, Ereinek argitaratutakoa lau hizkuntzatan duela zenbait urte; eta *Marikanta eta inurriak*, Ereinek iaz kaleratua. Horiek helduen literaturara bidera zitezkeen, baina balio dute haur literaturako sail baterako ere. Garrantzitsuena sormena da, bururatzen zaizkigun ideiak eta horiek nola lantzen ditugun. Gero dator irakurle inplizitu edo hipotetiko horrengana egokitzea; baina mamia bestean dago.

Askotan esan izan duzu haur literaturatzat jotzen den liburu asko helduen literatura gisa idatziak direla; eta helduentzako literatura ona.

Haur literaturako idazle klasikoen bizitzak aztertuz gero —Lewis Carroll, Antoine de Saint-Exupery, Hans Christian Andersen...—jabetzen zara haietako asko ez zirela irakasleak izan, ezta batere umezaleak ere. Barruko beste instantzia batekin lotuta dago haien literatura, hain topikoa dirudien barruko haur horrekin; umorearekin, absurdoarekin, jolasarekin lotzen den haurtasun horrekin. *Inurrien hiztegia*-k ere badu helburu ludiko bat.

Hau redo gazte literatura gisa argitaratu diren zure liburu batzuk ere helduen literaturako bildumetan argitaratzeko modukoak direla adierazi izan duzu, *Maitagarria eta desioa* adibidez (Elkar, 2012).

Maitagarria eta desioa kasu argi bat da, nire ustez. Literatura sormen prozesu edo arte gisa gauza bat da, eta beste bat da sistema literarioak nola funtzionatzen duen. Sistema literarioa, konparazio bat egiteko, gelaz betetako hotel baten antzekoa da. Hotel horretan, testu batzuei *suite* bana dagokie, beste batzuei gela normalak, beste batzuei sotokoak. Hor sailkapen bat dago, eta haur eta gazte literaturan sailkapen hori oso tiranikoa da, helduen literaturan baino tiranikoagoa: zenbat urteko irakurleentzako izan daitekeen, zer luzera duen, zer gai lantzen dituen... Ez zait batere gustatzen hori. Zenbat aldiz entzun behar izan dudan nik, nire testu bati buruz, laburregia dela bildumarako, eta luzatzeko! Baina ez. Nik ezin ditut betegarri gisa beste 20 folio idatzi. Hori, hala ere, ez da hainbeste gertatzen euskarazko edizioetan; hemen, gure berezitasunengatik, malguagoak izaten dira argitaletxeak.

Zuk ez duzu zure lanak argitaratzeko arazorik izango, ezta?

Ni nahiko ondo konpondu naiz. Azkenean bideratu ditut nire lanak hotel horretako gela batera

> «Literatura sormen prozesu gisa gauza bat da, eta beste bat da sistema literarioa»

> «Sistema literarioan sailkapen bat dago, eta haur literaturan oso tiranikoa da»

> «Gazte literaturaren eta helduenaren arteko mugan, liburu asko gurutzatzen dira»

edo bestera. Baina literatura, niretzat, nire baitan, hotela baino gehiago, itsaso zabal bat izango litzateke, kolore, neurri eta forma askotako arrainekin; eta arrain bakoitzak bilatzen du bere bizilekua. *Maitagarria eta desioa*, nire ustez, gaitasun literario handi samarra duten irakurleentzako liburua da, eta horren defendatzailea naiz. Liburu asko gurutzatzen dira gazte literaturaren eta helduen literaturaren arteko muga horretan. Fenomeno hori gero eta gehiago gertatzen ari dela uste dut gainera. Adibidez, azken urteetan arrakasta handiko bi *best seller* izan dira, berez gazte literaturako liburuak direnak: John Boyneren *Pijama marradunaz jantzitako mutikoa* eta Mark Haddonen *Txakurrari gauean gertatutako istripu bitxia*.

Ospearen edo estatusaren aldetik, bigarren mailan dago beti haur eta gazte literatura, helduenaren azpian beti.

Sarietan diru gutxiago dago, komunikabideetako agerpenak marjinalagoak dira... Baina ni idazten hasi nintzen garaiarekin alderatuta, gero eta espazio gehiago hartzen du haur eta gazte literaturak. Aztertzekoa litzateke helduen literatura egiten duten idazle asko nola eta zergatik iritsi diren haur eta gazte literaturara. Ez hemen bakarrik, baita hemendik kanpo ere. Haur eta gazte literaturak merkatu polita du. Onak, ez hain onak, txarrak... gauza batengatik edo bestearengatik saldu egiten dira. Askotan egiaztatu dut hori nire bizitzan, eta nik askatasuna besterik ez dut erreibindikatu, nahi dudana idazteko askatasun osoa izatea. Hortik aparte, gizarte batean bizi naiz, sistema literario baten barruan dago nire lana, sistema horrek mugatu egiten nau, eta onartu egin behar ditut muga horiek, edo ez, baina garrantzitsuena askatasuna da. *Inurrien hiztegia*-ren kasuan, opari bat izan da niretzat entzutea arrazoia dudala, hau helduentzako liburua dela. Hori da muga horretan gabiltzanok behar duguna: argitaletxe malguagoak.

Zer iritzi duzu gaur egun hemen nahiz munduan egiten den haur eta gazte literaturaz?

Ez naiz aditua. Jarraitzen ditut argitalpen batzuk, baina ezin dut oso iritzi sendorik eman, inpresio hutsak baizik. Nik uste dut, oro har, zerbait kulturala izateari utzi, eta zerbait komertziala bihurtu dela literatura. Helduen literatura, gazteena eta umeena. Eta horregatik kasik edozer gauzak balio du, duen izenaren arabera, promozionatzen den moduaren arabera, modaren indarraren arabera... Gianni Rodari, Cristina Nostlinger... nire mentore izan diren idazleen errealismo kritikoa gaur egun nahiko baztertua dago, eta pasatu gara fantasiaren modara: munstroak, banpiroak, magoak... Ez dut harroa izan nahi, eta betiko aldarrikapenekin nabilela esango dute, baina uste dut gure defentsa bakarra dela



Idatzitakoaren itzulpenak jasotzea «zerbait magikoa» da

Hizkuntzaren mugak zeharkatzen jarraitzen du, etenik gabe, Mariasun Landaren obrak. Gehien itzulitako euskal idazleetako bat da. *Katuak bakar-bakarrik sentitzen direnean* ipuinaren (Anaya, 1997) eslovenierazko itzulpena jaso berri du, adibidez. «Polonierazko itzulpen bat jaso nuen pixka bat lehenago, arabierazkoak ere jaso ditut, koreerazkoak... batzuk grafia ezberdinekin...». Poza ematen dio horrek. Berak aspaldi idatzi zuena atzerriko hizkuntza bateko liburu bihurtuta jasotzea, «zerbait magikoa» iruditzen zaio.

amore ez ematea, ezezkoa ematea munstro, banpiro eta mago horiei.

Literatura pedagogiaren menpeko ezartzea ere ez duzu maite.

Lehen aipatu dudan sistema literarioaren hotel horretan, haur eta gazte literaturaren geletan ondo sartzen diren liburuak bitartekarien menpe daude: irakaskuntza, gurasoak... nik *amaorde pedagogikoa* deituko nukeenaren menpe; ez esateagatik ideologia. Amaorde pedagogiko horrek une honetan aurpegi ezberdinak hartu ditu, baina jarraitzen du amaorde izaten. Liburuen erreseinak egi-

> «Nik askatasuna baino ez dut erreibindikatu, nahi dudana idazteko askatasun osoa»

> «Zerbait kulturala izateari utzi, eta zerbait komertziala bihurtu da literatura»

> «Haur eta gazte literatura lotuegia dago 'amaorde pedagogikoa'-rekin»

terakoan, beti bilatzen da mezu pedagogikoa. Ez dakit noiz sartu zitzaigun hori, baina nik garbi daukat: liburu bat pedagogikoa da ondo idatzita dagoenean. Arazoa da haur eta gazte literatura oso lotuta dagoela amaorde pedagogikoarekin eta irakaskuntzarekin: «honekin landu daiteke kulturaniztasuna, honekin bizikidetza...». Beharbada bai, balio dezake horretarako, baina ez dago idatzita horretarako. Nik behintzat ez dut horretarako idazten.

Literatura amaorde pedagogiko horretatik askatu behar da beraz?

Orduan gizarteak ez luke behar. Beharbada horretarako dago haur eta gazte literaturako produkzioa. Transgresore samarrak direnak kanpoan geratzen dira. Adibidez, *Pinotxo*-ren jatorrizko bertsioan —eta Claudio Collodik XIX. mendean idatzi zuen hura—, kilkerra agertzen da hasieran, Pinotxori gaizki jokatu duela esanez, eta Pinotxok kilkerra paretaren aurka bota eta hil egiten du. Disneyk kontzientzia edo erruduntasun sentimendua irudikatzen duen kilker hori bukaeraraino mantendu eta garrantzi handiko pertsonaia bihur baldin badu —ia Pinotxo bera bezain garrantzitsua—, horrek esan nahi du umeak gizartearen esku daudela. Egoera horren aurrean, ea lortzen dugun guztion artean literatur gramo batzuk ateratzea. Literatur gramo horiek dira benetan askatasunaren ondorioak, beharbada ezertarako balio ez dutenak; irribarre hobeto egiteko edo arnasa hobeto hartzeko.

Helduen literatura libreagoa da ikuspegi horretatik begiratuta?

Bai. Helduen literaturan arnasa hobeto hartzen da, nahiz eta irakurleen gaitasunaren esku dagoen arnasa hartzeko aukera. *Inurrien hiztegia*-rekin gertatu izan zait irakurle batek esatea bigarren aldiz irakurri duenean hobeto ulertu duela. Hor irakurketa zailago batekin egiten dugu topo, eta heldu askok haur eta gazte literaturari dagokion gaitasuna dute.

Noiztik duzu gisa honetako ipuin laburretarako zaletasuna?

Betidanik izan dut. Liburuan Augusto Monterroso aipatu dut, niretzat lehenengoa izan zelako, baina orain, beste batzuen artean, Ana Maria Shua idazle argentinarra dut oso gustukoa. Haur eta gazte literatura asko idatzi du gainera Shuak, nik bezala. Shuaren ipuin laburretan haur eta gazte literaturan ikusten diren elementu asko ikusten dira: joko ludikoak, absurdoa, irribarrea... Monterroso izan da beti mentorea, baina orain egile asko ari dira lantzen ipuin laburrak.

Autofikzioa autobiografia baino goragokotzat jotzearen aurka zaudela ematen du, *Literatura* ipuina irakurri eta gero.

Ez da kritika bat. Ni ez nago autofikzioaren aurka. Barre pixka bat egiten dut gaiaren inguruan, besterik ez. Beldurra dago liburu bat autobiografikoa dela esateko. Autobiografia autofikzioa baino gutxiago balitz bezala, autofikzioa modernoagoa balitz bezala. Balio literario handiko autobiografiak daude, zoragarriak, eta beharbada ez dira ezagutzen. Natalia Ginzburg da maistra handi bat horretan; Elias Canettiren autobiografia ere bikaina da. Autofikzioak, *ni*-a erabiliz baina benetan beti *ni* izan gabe, joko handia ematen du, eta izugarri ederra da, baina autobiografia egiteko nolabaiteko beldurra dagoela sumatzen dut. *Ni*-aren literatura asko gustatzen zait. Ez bakarrik autobiografia; baita egunerokoak eta horrelakoak ere. *Ni*-aren literaturak irakurleari interpelatzen dio, eta bere autobiografia osatzen laguntzen, zentzu noblean.

Inkonformistatzat jo duzu beti zeure burua. Zerekin ez zaude konforme gaur egun?

Garai krudelean eta basatian bizitzen ari garela uste dut, atzerapen handia ekartzen ari dena, eta beldurra ematen didana. Adinean aurrera noa, eta nire inkonformismoa ere mugatuagoa da. Ez naiz jarriko sutan dagoen barrikada baten atzean. Baina ez nago gustura ikusten dudanarekin. Inkonformista nago, samurragoa den zerbait aipatzearren, adinen artean egiten diren diferentziekin, gaztetasunak gaur egungo gizartean duen prestigio gehiegizkoarekin. Gainera, jada ez dira 25 urteko gazteak, 20koak baizik, edo 15ekoak. Eta ez dakit ez ote goazen gizarte infantil baterantz.